

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA (ETHI). APARTAMENTUAK 2018KO ABENDUA

Euskal AEko apartamentu turistikoetako gualdiak %31,8 hazi ziren 2018ko abenduan eta %26,6 urte osoan

2018ko turismo-balantzea: %4,7 hazi dira turista-sarrerak eta %8,1 gualdiak Euskal AEn

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko apartamentu turistikoetako gualdiak 2018ko abenduan 22.393 izan dira, 2017ko abendukoaren aldean %31,8ko gehikuntza.

Ostatu-gauek urtetik urterako bilakaera positiboa izan dute hiru lurraldeetan: Gipuzkoan %42,9 igo dira, Bizkaian %36,2 eta Araban %18,7.

Bestela ere, 2018ko abenduan 5.233 bidaiari-sarrera erregistratu dira Euskal AEko apartamentu turistikoetan, %4,5eko gehikuntza dena. Lurraldeka, bidaiari-sarrerek behera egin dute %28,1 Gipuzkoan eta %8,7 Araban, baina gora egin dute %37,1 Bizkaian.

Gualdiak, sarrerak eta batez besteko egonaldia Euskal Aeko apartamentu turistikoetan. 2018ko Abendua

	Gualdiak		Sarrerak		Batez besteko egonaldia	
	2018/12	m/m-12 (%)	2018/12	m/m-12 (%)	2018/12	2017/12
EUSKAL AE	22.393	31,8	5.233	4,5	4,28	3,39
Estatukoak	17.136	21,3	4.130	1,4	4,15	3,47
Atzeritarrak	5.257	83,2	1.103	18,0	4,77	3,07
ARABA/ÁLAVA	7.168	18,7	913	-8,7	7,86	6,04
Estatukoak	5.646	10,5	886	-8,4	6,37	5,28
Atzeritarrak	1.522	63,5	27	-16,9	57,15	29,03
BIZKAIA	8.845	36,2	3.026	37,1	2,92	2,94
Estatukoak	7.030	26,3	2.366	26,3	2,97	2,97
Atzeritarrak	1.815	96,0	661	97,3	2,75	2,77
GIPUZKOA	6.379	42,9	1.294	-28,1	4,93	2,48
Estatukoak	4.460	29,2	878	-28,7	5,08	2,80
Atzeritarrak	1.920	89,7	416	-26,7	4,62	1,78

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Egonaldien batezbestekoa 4,28 egunekoa izan da abenduan, 2017ko abenduan izandako 3,39 eguneko batezbesteko egonaldiaren gainetik. Arabako egonaldiak iazko abenduan 6,04 egunekoak izatetik 7,86 egunekoak izatera igaro dira aurtengo abenduan; Gipuzkoako kasuan, 2017ko abenduan 2,48 egunetik aurtengo abenduan 4,93 egunera luzatu dira egonaldiak; aldiz, Bizkaian gutxitu egin dira 2017ko abenduko 2,94 egunetik 2,92 egunekora aurtengo abenduan.

2018an, oro har, apartamentu turistikoetako gualdiak %26,6 igo dira

2018an, oro har, 308.409 gualdi izan dira Euskal AEko apartamentu turistikoetan, zeina %26,6ko gehikuntza baita 2017aren aldean. Gualdiek gora egin dute hiru lurraldeetan: %50,7 Gipuzkoan, %32,9 Araban eta %7,5 Bizkaian.

79.306 sarrera izan dira Euskal AEko apartamentu turistikoetan 2018an, aurreko urtekoen aldean %8,3ko igoera dena. Araban %24,2 igo dira sarrerak eta %16,3 Gipuzkoan, baina %0,7 jaitsi dira Bizkaian..

2018an iritsitako batez besteko egonaldia 3,89 egunekoa izan da, zeinek hobetzen duen 2017an lorturikoa, 3,33 egun. Araban iragan da 2017an batez besteko egonaldia 6,46 egunekoa izatetik 2018an 6,91 egunekoa izatera, Bizkaian 2,78koa izatetik 3,01ekoa izatera eta Gipuzkoan 2,88koa izatetik 3,73koa izatera, hobekuntza azpimarragarria.

Gualdiak, sarrerak eta batez besteko egonaldia Euskal Aeoko apartamentu turistikoetan. 2018

	Gualdiak		Sarrerak		Batez besteko egonaldia	
	2018	2018/2017 (%)	2018	2018/2017 (%)	2018	2017
EUSKAL AE	308.409	26,6	79.306	8,3	3,89	3,33
Araba/Álava	88.449	32,9	12.800	24,2	6,91	6,46
Bizkaia	116.795	7,5	38.834	-0,7	3,01	2,78
Gipuzkoa	103.165	50,7	27.673	16,3	3,73	2,88

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

2018ko abenduko turista-balantzea

Hotelak, landa-ostatuak eta apartamentuak batera, 220.565 sarrera erregistratu dira 2018ko abenduan, %5,1eko gehikuntza aurreko urteko hil beraren aldean. Bizkaiak Euskal AEko sarrera guztien %48,9 kontzentratzen ditu eta sarrera guztien batuketak %6,4 egin du gora. Gipuzkoak Erkidegoko sarreren %36,5 hartu ditu eta bere gorakada %6,4koa izan da; Araban, zeinek sarrera guztien %14,6 hartu baititu, %1,8ko beherakada izan da.

Ostatu-gauak %7,5 egin dute gora establezimendu turistiko hartzaileen guztizkoan, eta gorakada hori hiru lurraldeetan gertatu da: %8,3 Bizkaian, %7,0 Gipuzkoan, %5,9 Araban.

Gaualdiak eta sarrerak Euskal Aeko hotel, landa ostatu eta apartamentuetan. 2018ko Abendua

	Gaualdiak		Sarrerak	
	2018/12	m/m-12 (%)	2018/12	m/m-12 (%)
EUSKAL AE	432.246	7,5	220.565	5,1
Araba/Álava	66.235	5,9	32.231	-1,8
Bizkaia	208.178	8,3	107.937	6,4
Gipuzkoa	157.832	7,0	80.397	6,4

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Urte osoan %8,1 igo dira gaualdiak hoteletan, landa-ostatueta eta apartamentuetan Euskal AEn

2018an zehar 6.799.104 gaualdi izan dira Euskal AEn hoteletan, landa-ostatueta eta turismo-apartamentuetan, 2017an izandakoen aldean %8,1eko igoera. Ostatu-gauek hiru lurraldeetan egin dute gora: %10,5 Gipuzkoan, %6,6 Bizkaian, %6,1 Araban.

2018an lorturiko sarrerak 3.322.922 izan dira hoteletan, landa-ostatueta eta turismo-apartamentuetan, aurreko urtearen aldean %4,7ko gehikuntza. Sarrerak ere igo dira hiru lurraldeetan: %7,4 Gipuzkoan, %3,7 Bizkaian eta %0,9 Araban.

Gaualdiak eta sarrerak Euskal Aeko hotel, landa ostatu eta apartamentuetan. 2018

	Gaualdiak		Sarrerak	
	2018	2018/2017 (%)	2018	2018/2017 (%)
EUSKAL AE	6.799.104	8,1	3.322.922	4,7
Araba/Álava	949.347	6,1	474.129	0,9
Bizkaia	3.113.561	6,6	1.555.555	3,7
Gipuzkoa	2.736.196	10,5	1.293.239	7,4

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62